



Ikasgaiaren programa

ENPRESA ETA NEGOZIO EREDUEN DISEINUA



IBAZABAL IKASTOLA

2024-25

2BTX

0. ZER DA DOKUMENTU HAU?

Dokumentu honetan Ekonomia ikasgaiaren urteko plangintza azaltzen da. Bertan ikus daitezke:

- 1. Ikasgaiaren bidez lortu nahi diren HELBURUAK.*
- 2. Ikasturtean zehar landuko diren EDUKIAK, eta eduki bakoitza ikasturteko zein momentutan landuko den.*
- 3. Ikasgaia lantzeko erabiliko den METODOLOGIA; hau da, ikasleek jakintzak eskuratu, praktikan jarri eta integratzeko erabiliko den modua.*
- 4. Ikaslearen lana eta jarrera nola EBALUATUKO den; hau da, irakasleak nola baloratuko duen ikasleak bere jakintzak eta konpetentziak jaso dituela.*
- 5. Ikaslearen nota eraikitzeke KALIFIKAZIO SISTEMA; hau da, ikasturtean zehar ikasle bakoitzaren nota nola eraikiko den (hitzorduak eta jarduerak).*

*Ikasgaiaren nondik norako nagusiak jasotzen dituen dokumentua da hau, beraz. Ikaslearen lana bikaina izateko bidea zein den azaltzen da bertan. Ikaslearen **betebeharra** da, ondorioz, programazio hau ezagutzea eta bertan azaltzen denaren arabera lan egitea.*

*Era berean, ikasle moduan zuen **eskubideak** ezagutzeko eta ikasturtean zehar horren arabera nota ona eraikitzen joateko aukerak baliatzeko jarraibideak topatuko dituzu.*

*Garrantzitsua da kontuan hartzea emaitza bikainak **eguneroko lanaren** bidez ateratzen direla. Nota hobetzen joateko aukera ziurtatuta daukazue ebaluazio guztietan, baina, era berean, egunerokoan **jarrera egokia** izatea, **ekina izatea, kritikotasunez eta autonomiaz jokatzera**, eta ahal den heinean, **ikasgaiaz disfrutatzea** ezinbesteko bidelagunak izango dira ikasturtea arrakastaz amaitzeko.*

*Beraz, ikasgaiaren egitura eta funtzionamenduaren inguruan izan ditzakezun **zalantzen erantzun nagusiak** dokumentu honetan aurkituko dituzu.*

1. IKASGAIAREN HELBURUAK

H1. Ikasleak enpresaren ezagutzara hurbiltzea, ingurunearekin duen erlazioa ikertuz eta enpresak testuinguruaren elementu eraldatzaile gisa duen zereginaren inguruan gogoeta eginez, gizartean izandako aldaketen ondorioz sortzen diren arazoei erantzuteko eta irtenbideak bilatzeko

H2. Erantzukizun sozial korporatiboaren berezko balioak integratzea enpresan eragina duten ingurune orokorreko eta espezifikoko elementuak identifikatuz eta konpondu behar diren arazoak proposatuz gizarte bidezkoagoa, jasangarriago, inklusiboago bat lortzen lagunduko dion diskurtsoa eraikitzeke.

H3. Sormena eta berrikuntza espiritua eta gogoeta kritikoa sustatzea sormen diseinua errazten duten estrategiak eta tresnak aplikatuz eta komunikazio tresna eraginkorrak erabiliz ongizate ekonomiko eta sozialari laguntzen dioten negozio ereduak proposatzeko

H4. Negozio eredu diseinatzeke ekintzaitza kultura sustatzea, negozio eredu diseinatuz eta bideragarritasunaren inguruko erabaki arrazoituak hartuz negozio ereduaren prozesu guztiaren ikuspegi integrala lortzeko eta gaur egun aurre egin beharreko arazo eta erronka konplexuei irtenbidea emateko.

2. IKASGAIAREN EDUKIAK

UD 1: Ekonomia eta enpresa

UD 2: Ekintzaitza

UD 3: Enpresaren antolaketa

UD 4: Merkataritza jarduera

UD 5: Ekoizpen funtzioa

UD 6: Giza baliabideen kudeaketa

UD 7: Finantza funtzioa eta inbertsioa

UD 8: Enpresa ondarea eta urteko kontuak

UD 9: Enpresaren finantza egoera

UD 10: Digitalizazioa eta negozio eredu berriak

UD 11: Berrikuntza negozio ereduetan

UD 12: Enpresa planaren egitura

Ikasgai honetako edukien gutxi gora beherako banaketa hurrengoa da:

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	UNITATE DIDAKTIKOA											
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
1. Ebaluaketa	■	■	■	■								
2. Ebaluaketa				■	■	■						
3. Ebaluaketa							■	■	■	■	■	■
SPS SAIOAK	Gairen bat eman gabe geratu bada eta ikasturteko errepasoa											

3. IKASGAIAREN METODOLOGIA

Lanerako metodologiari dagokionez, bi eratako lanketak izango dira nagusiki:

JAKINTZAK ESKURATZEKO SAIOAK

Irakasleak gidatutako saioak izango dira eta bertan edukiak, kontzeptuak landuko dira. Saio hauetarako, ikasleen parte hartze aktiboa ere beharrezkoa izango da.

INTEGRAZIO JARDUERAK

Taldeka zein bakarka, zeregin ezberdinak gauzatu beharko dira saio hauetan, ikasgaiaren edukiak erlazionatu eta bereziki *enpresa eta negozio ereduaren disenua* ikasgaiak gizartean duen garapena, ekarpen nagusiak eta etorkizunera begirako erronkak landuko dira.

4. EBALUAZIOA

Ikasleak ebaluatzeko eta ikasgaiaren helburuak lortu direla ziurtatzeko bi froga nagusi egongo dira:

AZTERKETAK ETA KONTROLAK (AZT eta KO)

Azterketen bitartez edukiak eta hauen ulermenarekin erlazionatutako konpetentziak (helburuak) ebaluatuko dira. Azterketetan problemak ebazpena eta eduki eta kontzeptu teorikoen ulermena eta azalpena baloratuko da, bai eta ebazpen prozeduran erabilitako erregistroa (hitzezkoa eta matematikoa). Horretaz gain, emandako azalpenen eta egindako planteamendu eta garapenen heldutasuna, arrazionamendu kritikoa eta sakontasuna baloratuko da.

INTEGRAZIO JARDUERAK (I.J) (ebaluazio guztietan ez)

Integrazio jardueren bitartez, edukiak osatzeko aukera egongo da. *Enpresa eta negozio ereduak diseinuak* gaur egungo zein etorkizuneko erronketatik erator daitezkeen hainbat eztabaida ulertzea da ariketa mota honen helburua. Integrazio jarduerak taldeka zein bakarkako zereginak izan daitezke.

Egin beharreko lanaren arabera moldatuko dira ebaluazio-irizpideak eta integrazio jardueraren azalpenarekin batera jasoko dira dagozkion ebaluazio-irizpideen deskribapena.

GELAKO JARDUNA (G.J)

Gelako jarduna ondorengo irizpideen arabera ebaluatuko da:

1. Euskara: Euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko hautua egitea.
2. Parte hartzea
 - a. Jarrera pro-aktiboa izatea: Ikasteko nahia eta gogoia. Jarrera positiboa izatea, ulertzen ez dena galdetuz. Mugikorrik ez izatea, inguruko ikaskideak ez oztopatzea...
 - b. Errespetuz parte hartzea: Neurritz eta errespetuz parte hartzea eta azalpenak ez etetea. Teknologiako ikasgaietan Teknologiako apunteak izatea mahai gainean eta ez beste lan edo ikasgai batekoak.
 - c. Entzuten jakitea. Irakaslearen azalpenak, ikaskideen ekarpenak arretaz entzutea, gorputz lengoia eta jarrera zainduz.
3. Elkarlana eta elkarbizitza
 - a. Barne arautegiko eta elkarbizitzako arauak errespetatzea.
 - b. Ingurukoak laguntzea.
4. Autonomia
 - a. Asistentzia: Ikasgaietan justifikatu gabeko 5 hutsegite baino gutxiago behar dira azterketa egin ahal izateko. >5 hutsegiterekin zuzenean BERRESKURAPENA egin beharko da.
 - b. Ikasle bakoitzaren esku geratzen da hutsegiteen kontua eramatea. Ez da hutsegiteen gaineko abisurik emango.
 - c. Puntualtasuna: Irakaslea izango da klasean azkena sartzen. Berandu iristea hutsegite erdi gisa konputatuko da.
 - d. Lana: Denboraren probetxua, materiala ekartzea, ariketak ganoraz eta txukun egitea, etxeko lanak egitea...
 - e. Lanak epe barruan entregatzea: Epez kanpo entregatzen diren lanak ez dira jasoko, pisuzko justifikaziorik ezean.
5. Hezkidetzatza: Ikaskideekiko eta irakaslearekiko errespetua.

Jarraipen berezia egingo zaio klaseak jarraitzeko beharrezko materiala egunero ekartzeari. Kuaderno digitala izango da ikasgaiak liburuak beraz, klaseak jarraitzeko **ordenagailua behar beharrezkoa** da. Honetaz gain, ariketak eta apunteak hartzeko **kuaderno bat ere derrigorrezkoa** da. Ordenagailua ez ekartzea, batera gabe izatea, kuadernoa ahaztea...gelako jarduneko notan eragingo du.

6. KALIFIKAZIO-SISTEMA

- HIRUHILEKO BAKOITZAREN KALIFIKAZIOA

Hiruhileko guztietan ikaslearen nota kalkulatzeko sistema hurrengoa izango da:

EBALUAZIO BAKOITZEKO KALIFIKAZIOA				
ATALA	KO	I,J	AZT	G,J
1.evaluaketa	40	0	50	10
2.evaluaketa	40	10	40	10
3.evaluaketa	Ohiko deialdiaren kalifikazio atalean azalduta			

Hiruhileko bakoitza gainditzeko bete beharreko baldintza GUZTIAK hurrengoak dira:

- Azterketa, kontrol eta integrazio jardueren batz-besteak gainditzea. (>4,5)
- Hiruhileko osoaren batz-besteak orokorra gainditzea. (>=5)

- OHIKO DEIALDIAREN KALIFIKAZIOA

Ohiko deialdian ikasle guztiek azterketaren bat egin beharko dute. Hainbat kasu nagusi bereizten dira:

A Eredua - 3. evaluaketa osatzeko azterketa	3 ebal				Ohiko deialdia	IKASTURTEKO NOTA FINALA
	KO	KO	AZT	G J		
		%20	%50	%10	%20	(1+2+3)/3
<ul style="list-style-type: none"> Evaluaketa guztiak gaindituta dituen ikasleek egingo dute azterketa hau eta 3. Ebaluazioko nota osatzeko balioko du. Kontrol/Azterketa honetan sartzen diren edukien arabera zehaztuko da azterketaren behinbetiko pisua. Jarrera baloratzeko 3. evaluaketako edukien batz-besteak: >= >4,5 						
B Eredua - USE eredua - Nota hobetzeko aukera	3 ebal				Ohiko deialdia	IKASTURTEKO NOTA FINALA
	KO	KO	AZT	G J		
	%20	%20	%50	%10	USE + * 3. evaluaketarako %20 * 3. evaluaketako berreskurapena %90 + ** Ikasturteko Nota hobetzeko x 0,1	(1+2+3)/3 + USE azterketa x 0,1

	<ul style="list-style-type: none"> Azterketa hau egitea ez da derrigorrezkoa izango. Azterketa honetan ikasturte osoko edukiak sartuko dira eta USE eredia jarraituko du. Aukera hau gomendagarria da USEn "Enpresa eta Negozio ereduaren diseinua" ikasgaiaren azterketa egingo duten ikasleentzat. Azterketa honen emaitzak eragin bikoitza izango du <ol style="list-style-type: none"> 3. ebaluazioko nota osatzeko (%20) eta /edo berreskuratzeko balio du (%90) Azterketako nota >5 bada, azterketan lortutako notaren (%10), ikasturteko notari gehituko zaio. Jarrera baloratzeko 3. ebaluaketa edukien batzbesteko: >4,5 					
C Eredua - Ebaluazio / atalen berreskurapena k	3 ebal				Ohiko deialdia	IKASTURTEKO NOTA FINALA
	KO	I.J	AZT	G J		
		%20	%50	%10	*1 edo/eta 2 berreskurapenak + *3 ebal %20 edo %90 (berreskurapena)	(1+2+3)/3
	<ul style="list-style-type: none"> 1 edo / eta 2 ebaluazioa(k) gainditu gabe dituen ikasleak ohiko deialdian pendiente dituen ebaluazioen berreskurapenak egin beharko ditu. Suspenditutako ebaluaketa bakoitzeko azterketa bat egingo du ikasleak, horrela ebaluaketak banaka gainditzeko aukera emango dio. Honetaz gain, 3. Ebaluaketa ebaluatzeko falta den atala ere egin beharko du ikasleak. 3. ebaluazioko azterketa edo/eta integrazio jarduera gainditu gabe badaude, hirugarren ebaluazioa osorik berreskuratu beharko du eta %90a jokatuko da azterketan. Ebaluaketa bakoitzean lortutako notak, ebaluazio horretako edukien nota ordezkatu du eta ebaluaketa bakoitzaren jarrera gehitu eta gero 1, 2 eta 3 ebaluaketen batzbesteko aritmetikoa kalkulatu da ikasturteko nota finala kalkulatzeko. Ebaluazio guztiak gaindituta egon beharko dira ikasturteko nota globala kalkulatu ahal izateko. 					

● **EZ-OHIKO DEIALDIA**

Ez-ohiko deialdian ikasgaia atalka edo azterketa bakarraren bitartez gainditzeko aukera egongo da, ohiko deialdiaren prozedura berdina jarraituz.

● **IKASTURTEKO AMAIERAKO KALIFIKAZIOA**

Ikasturteko nota 3. hiruhileko batz-besteko aritmetikoaren kalkularen bitartez egingo da.

- **BERRESKURAPENAK**

Hiruhilekoak atalka berreskuratzeko aukera egongo da. Berreskurapenak arratsaldean egingo dira, ordu lektiboetatik kanpo.

Hirugarren ebaluaketaren berreskurapena zuzenean OHIKO DEIALDIAN izango da.

- **NOTA IGOERAK**

Ikasturtean zehar, ikasgaiko nota hobetzen joateko hainbat aukera egongo dira:

- **Ebaluazio bakoitzean:** Ebaluazio bakoitzeko azterketaren hitzorduan borondatezko galdera gehigarri bat erantzunez. Galdera honen bitartez ideiak elkarrekin harremanetan jarritz zein gaiaren gainean hausnartuz ebaluazioan zehar landutako jakintzak eta konpetentziak barneratu dituela erakutsi beharko du ikasleak. Galdera honen bitartez, ebaluazioko nota hobetu ahalko da puntu bateraino.
- **Ikasturteko nota orokorra:** Ikasgaia gaitasuna dutenek, ohiko deialdian nota igotzeko aukera izango dute, USEko eredu jarraitzen duen eta ikasturteko eduki guztiak hartzen dituen azterketa baten bitartez. Azterketa horretako notak, ikastute osoko batazbestekoa hobetu ahalko du puntu bateraino.

haziak > JARRERA PARTE-HARTZAILEA BULTZATZEKO SISTEMA

Ikasleak bere ibilbide akademikoa indartzen joateko jarrera bultzatzeko sistema da haziena. Helburua da ikasleek urtean zehar ikastolatik bertatik antolatutako zein kanpoko ekintzetan parte hartzea bultzatzea, bere ikasketa prozesua aberasteko balio duten esperientziak biltzen joateko.

Hitzaldi, debate edo mahai inguruetara joanez, erakusketak bisitatuz, antzerki edo dantza emanaldietara agertuz, solasaldi zientifikoetan parte hartuz... edo, oro har, ikaslearen irteera perfila aberastu dezaketen edozein hitzordu baliatzen bultzatzeko sistema da, beraz.

Horrez gain, jarrera parte hartzaile honek eragina izan dezake ikasturteko emaitzetan. Ikasturtean zehar, ekintza hauetan parte hartu izana erakutsiz gero, hainbat ikasgaitako notak hobetzen joan daitezke.

Horretarako ikasleak, txantilo/zeregin berezia bete eta entregatu beharko du:

- Ebaluazio bakoitzeko, gehienez 4 ekintza aurkeztu daitezke hainbat ikasgaitan banatuta.
- Gehienez ere, ikasgai bakoitzaren barruan 2 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.
- Gehienez ere, 10 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.

Hazien bitartez lortutako nota igoerak ebaluazio amaieran aplikatuko dira, ikaslearen ebaluazio horretako batezbesteko orokorra kalkulatu ondoren (eta beti ere, ebaluazioa gaindituta dagoenean).

Aurkeztutako ekintzen bitartez, ikasleak bere ikasturteko batezbesteko orokorra 1 punturaino hobetu ahal izango du, ikasgaiaren arabera, horretarako dagokion ebaluazioan behar besteko pisua hartuz.

Haziak aurkezteko txantiloia/zeregina Classroom-en eskuragarri egongo da.